

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

## 4013

*AGINDUA, 2022ko irailaren 1ekoa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Ekonomia eta Ogasun Sailean behin-behineko langile bat lanpostutik kentzea xedatzen duena.*

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28.2 artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 96.2 artikuluan ezarritako aurreikuspenak aplikatuz, ondoren zehazten den kargu-uztea gauzatzen da, eta, horrenbestez, hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Joseba Andoni Alcalde Amutxategi jauna kentzea Ekonomia eta Ogasun Saileko Ogasun eta Finantza Araudiari buruzko aholkulariaren kargutik (kodea 5278; dotazioa 1), eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargu-uzteak 2022ko irailaren 16tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek administrazio-bidea amaitzen duenez, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok agindua eman duen organoari, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean; bestela, administraziorekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administraziorekiko Auzietako Epaitegian, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 1a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,  
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.